Pizzio
estanco nº 2
Altzate, 26 · Tel. 948 630 788 · 31780 Bera

besta on batzuk opa dizkizuegu!
ZU loredenda dekorazioa osagarriak
Altzate, 33 | 31780 BERA
zuloredenda@hotmail.com
Tel.: 948 625 786

Luahi
ileapaindegia · solarium · estetika zentrua
Luahi Ileapaindegia
Eztegara kalea, 20 . BERA . 948 625 742

Manterola
Técnico instalador 629 449 602
FONTANERIA · GAS · CALEFACCION
AIRE ACONDICIONADO
COMPLEMENTOS DE BAÑO & COCINA
ENERGIAS RENOVABLES
Multiservicios & Coordinación de gremios

Tel.: 948 630 180
Altzate 28,
BERA

OROZ JANARI-DENDA

MILJAR
TABERNA
Bokatak, pintxoak,
errazioak, plater konbinatuak...
Tel.: 948 49 64 50 | Eztegara, 30 | BERA

autoeskola
ESKAINTZA BEREZIAK!
Ikastaro teorikoa
nahiz praktikoa
euskaraz!
- INFORMATU ZAITEZ -
Eztegara pasealekua, 26 • BERA
T. 948 630 298
Plaza Berria, 7 • LESAKA
T. 948 638 299
e-posta: semperautoeskola@gmail.com

FERRETERIA
MANOLO
Bidasoa, 72 • Tel.: 918 630 556 • BERA

BERAKO OIHUA

CARMEN IRAIZOZ OYARZUN, IDAZLE BERATARRA

Carmen Iraizoz Oyarzun Altzateko Xantenegaraian jaio zen, 1913an. Geroko bizitzari buruzko datu aunitz falta baditugu ere, gauza jakina da Geografia eta Historia ikasi zuela, especialitate horretan irakasle aritu baitzen bi tokitan bederen: Cadizko Jerez de la Fronterako “Padre Luis Coloma” institutuan eta Valentziako Merkataritza Eskolan.

Nolanahi ere, idazle gisara egin zituen lanengatik aipatu nahiko genuke. Izanez ere, iraizoztar honen izena ageri zaigu XX. mendeko idazle nafar ezagunenen artean, non emakume bakarrenetakoa den. Gaztelaniaz idatzirik, hiru nobelaz osaturiko trilogia utzi zigun: *Belzunegui -el ocaso de una familia-* (1969), *Impaciencia –cuesta arriba, cuesta abajo-* (1971), eta *París, piedra de toque* (1972). Azkeneko horregatik, *Blasco Ibáñez* saria eman zioten. Guk dakigula, ez zuen lanik argitaratu euskaraz.

Interesgarriak dira utzi zizkigun lanak, haietan ageri delakoz nolakoa zen inguru honetako jendearen pentsamoldea eta bizimodua joan den mendearen erdialdean, kontuan hartuz hiru liburu horietan kateatzen dituen istorioak “Berabia” eta “Olzate” herri asmatuetan sortzen direla *(" pueblecitos navarros de la frontera, muy cerca de Irún y a un paso de San Juan de Luz "*), nahiz eta gero bertze lurretara ere eramaten dituen protagonistak, Madrilera, Andaluziako herri batera eta Parisera.

1936ko gerra bete-betean bizi dute lehenbiziko bi nobeletako pertsonaiek, betiere frankisten aldean. Ongi ezagutuko zuen giro hura idazleak berak, etxean berean eta inguruan seguru hainbertze ikusi eta aditua. Hala ere, liburu hauetan apenas irakurriko dugun klabe politikoan entenditzeko moduko batzuen edo bertzeen aldeko baloraziorik. Gerra hura zerbait ikaragarria da, gizon-emakume gazteen bizi-proiektuak trabatuko edo erdi-erditik suntsituko dituena; ez du tinta aunitzik gastatuko bertzelako kontu epikoetan. Alde horretatik, hitzen soinua ongi neurtuz kontatzen dira gauzak, nire iduriko. Ezin dugu jakin zer den zinez Iraizozek horren gainean uste duena, zenbat isiltzen ote duen eta zergatik. Kontuan hartu behar da, baita ere, haren obra plazaratu zela frankismoa oraindik aski indarrean zen garaian eta ez ziotela zernahi publikatzen utziko.

Trilogiako protagonistak emakumeak dira, eta haien begietatik ikusten dira istorioetan

FONTANERIA
Carlos
Carlos Pacheco
C/Leguia nº 19
31780 BERA (Navarra)
Telefono: 637 15 11 70

ZELA KIROLAK
UDAZ GOZATU
kirola eginez!
Altzate, 6 • Tfnoa: 948 630 598 • BERA

EDARIEN eta JANARIEN
SALMENTA eta BANAKETA
SMAZIZIOR
edariak
T./F. 948 631 557
Helbidea. Ziobi, 3 ALKAIAGA
eposta: maziziorsenper@gmail.com

ZUBIONDO
JATETXEA-SAGARDOTEGIA
Alkaiaga industrialdea
Alasta karrika | BERA
Tel.: 948 625 472
350, 160 eta 40 lagunendako hiru jangela.
Bazkalondoa nahi bertze luzatzeko aukera.
Auto eta autobusendako aparkalekua.
Haurrendako jolasparkea. Koktelerako leku aproposa.
BANKETEAK ETA KARTA
Eskatu gure ezkontzetako menua

Goxuñe
Kafetegia Okindegia
Sara kalea, 7 - BERA | Tel. 948 630 235
Udako ordutegia (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Asteartetik igandera
07:30-13:30
17:00-21:00
Astelehena
07:30-13:30
Astelehen arratsaldean itxita

Osatuz
Psikologia-Psikoterapia
Garbiñe Goia Irazoki
HAURRAK / NERABEAK / HELDUAK
Tel.: 619 343 755
g.g.irazoki@gmail.com

MKS
Robótica colaborativa
Robotika
Automatizazioa
Mantentze industriala
Tel.: 948 48 26 94
www.mekatronikasistemak.com

Sara Kafetegia
UDAKO ORDUTEGIA (Ekainaren 24tik irailaren 1era)
Asteartetik igandera: 07:30-13:30 | 17:00-21:00
Asteazkena (arratsaldetan itxita): 07:30-13:30
Iturlandeta, 6 BERA · 948 625 673

ongi pasa bestak!
sarobe®
okindegia gozotegia
Eztegara 25, Bera 31780 Nafarroa I 948 63 08 99 @sarobe_okindegia_gozotegia I www.sarobe.net

gertatzen direnak. Horregatik dute are balio handiagoa narrazio hauek. Emakumeari halabeharrez ematen zaion kondizio subordinatuaren kezka nagusitzen da hiru nobeletan gehienbat. Gizarteak gizonaren zerbitzari eta azpiko izatera kondenatzen du, eta horren kontra egiten du liburuetan gailentzen den bozak.

Gaur egungo ikuspegitik deigarria da ikustea kristau fedeak eta erlijio katolikoaren aginduek nolako presentzia duten jende guziaren bizimoduan eta bereziki emakume haien pentsamenduetan. Alde horretatik, sexu harremanen inguruko goiti-beheitiek sekulako buruhausteak eragiten dizkiete, behin eta berriz ageri baitira hiru liburuetan. Gai horrek leku handia hartzen du hirugarrenean, zeina ia osorik Parisen gertatzen baita. Frantziako hiriburuan, sexualitatea arruntean diferente bizi duen jendea ezagutuko dute Espainia frankista eta zikiratzailetik joanen diren emakume gazteek. Iduri duenez, Carmen Iraizozek ikastaro batzuk egin zituen Parisko Sorbonan, eta esperientzia hura baliatu izanen zuen, dudarik gabe, azken nobela idazteko iturri gisara.

Idazlea, bere maneran eta denbora hartarako, feministatzat edo berdintasunaren aldeko progresistatzat hartzen ahal genukeela iruditzen zait. Segur aski ez da kasualitatea izanen estreinako liburua hiru ahizpei dedikatua izatea, anaiarik aipatu gabe. Anekdota gisara erranen dut idazki bat harrapatu dudala, zuzendariari bidaliriko eskutitza, *Triunfo* aldizkariko 1975eko zenbaki batean (urte hura *Emakumearen Nazioarteko Urtea* izendatu zuen Nazio Batuen Erakundeak), non Carmenek gai horri buruzko bere ideia batzuk agertzen dituen.

Narrazio horietaz gainera, bertzelako lanak ere argitaratu zituen Altzateko idazleak. Bertzeak bertze, *Geografía de España* bat, 1954an; eta tamaina apalagoko artikulu eta kolaborazioak, Interneteko itsaso zabalean aurkitzen ahal direnak: *El centenario de Chopin* (1949), *La situación económica de Marruecos (1969-1971)*…

2008an hil zen, Iruñean. Izan zenaz eta pentsatzen zuenaz edo egin zuenaz gehiago jakiteko faltan (konparazio batera, José Navarro Latorre falangista ezagunarekin izan omen zuen eskutitz trukea), lerro hauek agian ere balioko dute bere denboran halako ibilbidea egin zuen emakume erne hura gogoan hartzeko eta jakin-min pizar bat bizteko gure herriaren historiaz interesaturik gauden guzion baitan.

Mikel Taberna Irazoki, *Kapi*